

HIZTEGIA

Hiztegiaren erabilera onerako klase-hasieran ikasleei banatzea eta, hitzak banan-banan hartuta, haien esanahiari buruz mintzatzea proposatzen da.

Gida didaktikoaren barruan aurkituko duzuen hiztegi teknikoak bai bideoan teoria agertzerakoan, bai inguru profesionalean erabiltzen diren oinarritzko hitzez osatua dago.

LIBURUAK

Proposatzen diren liburuek zerikusi estua daukate kameraren eta argien munduko gaiekin eta ikasgaiekin, bai alderdi artistikoa jorratu nahi duenak erabiltzeko, bai alderdi teknikoak jorratu nahi duenak erabiltzeko.

Errealizazioa deitu dugun atalean agertzen diren liburuak sakonagoak dira, eta gaien gehiago sakondu nahi duten ikasle eta irakasleei zuzenduak daude.

BIDEO KAMERA ETA ARGIZTATZEKO TRESNERIA

9. KAPITULUA

ARGIZTATZEKO TEKNIKA BEREZIAK

Sarrerako hitzak

Dagoeneko azaldu ditugu argiztapen-plangintza bat egiteko jakin behar diren teknikak eta erabili ohi diren tresnak zein diren. Eszena bakoitzak argiztapen eta girotze berezia eskatzen duela ere esan dugu. Esate baterako, jai-giroak egun eguzkitsua eskatzen du; hileta batek, berriz, egun goibela. Baina, egoera dramatiko edo beldurrezkoa iradokitzeke, nola argiztatuko dugu eszena? Edo gaua iradokitzeke? Edo pertsonaia baten ibilbidea? Kapitulu honetan argiztatzeke teknika bereziak aztertuko ditugu. *Lantegia* atalean barrualdeke eszena bat argiztatzeke prestatu behar den plangintza nola egin ikusiko dugu.

Atalak

- Argiztatze errealista
- Argiztatze dramatikoak
- Argiztatze melodramatikoak
- Argi gutxiz nola grabatu
- Pertsona baten ibilbidea nola argiztatu
- Efektu bereziak egiteke iragazkiak

-LANTEGIA ATALA: barrualdeak nola argiztatu


LANTEGIA: Barrualdeak nola argiztatu

Atal honetan, gauzez eta barrualde batean grabatuko den eszena baten argiztapen-plangintza nola egin ikasiko dugu.

Egingo dugun lehenengo gauza argiztapen-plangintza egiteko prestatu dugun galdeketari erantzutea izango da. Galdera batzuei grabaziorako plangintza kontuan hartuta erantzungo diegu; besteak beste, aukeratutako tokiari buruzkoei, grabatzeko orduari buruzkoei eta soinuari dagokienei. Baina besteei erantzuteko dekoratua bisitatu beharko dugu.

Dekoratua bisitatu ondoren, atzera lan-mahaira itzuliko gara; eta, han, hartutako oharrak berrikusiko ditugu.

Datu horiek guztiak alboan dauzkagula hasiko gara argiztatze-planoari itxura ematen. Hasteko, dekoratuaren elementu garrantzitsuenak marraztuko ditugu; eta, ondoren, argi nagusiari eta betegarriari dagozkien fokuak, argindarraren ezaugarriak, eguzkiaren bidea eta haren argiaren eragina dekoratuan.





Plano finko bat argiztatzeko

1 Argi nagusia
2 Argi betegarria

Panoramika bat argiztatzeko

1 Argi nagusia
2 Argi betegarria



Travelling bat argiztatzeko

1 Argi nagusia
2 Argi betegarria

HIZTEGIA

Irabazia: bideo-seinale bati ezarritako anplifikazio elektronikoa. Irabaziaren bitartez, bideo-seinale ahul bat indartu egin daiteke, garbiago ikusteko.

Argiztapen dramatikoa: dekoratuaren edo koadroaren alderdi argien eta ilunen artean kontraste handia eragiten duen argiztapena. Kontraste-erlazioa 3:1 izaten da.

Argiztapen melodramatikoa: dekoratuaren edo koadroaren alderdi argien eta ilunen artean kontraste oso handia eragiten duen argiztapena. Kontraste-erlazioa 4:1 izaten da.

Argiztapen errealista: dekoratuko elementuak era naturalean erakusteko erabiltzen den argiztapena. Esaterako, leihotik sartzen den argiak argiztatutako logela bateko argiztapena da argiztapen errealista.

LIBURUAK

Bideo-kamera eta argiztatzeko tresneria

MILERSON, Gerald: *Cómo utilizar la cámara de video*, Gedisa, Barcelona, 1998

SWUAISON, G eta LYVER, Des: *La iluminación en video, Principios básicos*. Gedisa, Barcelona, 1997

MILERSON, Gerald: *Iluminación para televisión y cine*, IORTV, Madrid, 1996

ARONOVICH, R.: *Exponer una historia. La fotografía cinematográfica*, Gedisa, Barcelona, 1997

Errealizazioa

CHESHIRE, David: *Manual de cinematografía*, Blume, Madrid, 1981

FELDMAN, Simon: *La composición de la imagen en movimiento*, Gedisa, Barcelona, 1995

FELDMAN, Simon: *La realización cinematográfica*, Gedisa, Barcelona, 1997

Internet

www.imagendv.com

www.quesabesde.com

SERIEA OSATZEN DUTEN KAPITULUAK

- 1.- GRABATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA
- 2.- BIDEO KAMERAREN OBJEKTIBOA
- 3.- MUGIMENDUA IRUDIAN
- 4.- ARGIA
- 5.- ARGIZTATZEKO OINARRIZKO TRESNERIA
- 6.- ARGIZTATZEKO TRESNA ETA OSAGARRIAK
- 7.- ARGIZTAPENAREN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK
- 8.- NOLA ARGIZTATU KANPOALDEAN
- 9.- ARGIZTATZEKO TEKNIKA BEREZIAK
- 10.- PRODUKZIOA ETA ENTSEGUAK
- 11.- GRABATZEN

ekoizlea:

iadi

LG.- VI-26 / 06

Banatzaillea:



Getaria, 18-behea, 01010-Gasteiz
Tel-faxa: 945200608
artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

Ikasmaterial honek
Hezkuntza,
Unibertsitate eta
Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena
du.

2006/05/02